


ASTIGAR ARRUNTA (*Acer Campestre* L.)

Zuhaitz txiki edo ertaina izaten da, altueran 20 metro artekoa. Adar zabalak ditu eta itzal ederra ematen du. Azala lodia du eta zartatua. Apirila eta maiatzean loratzen da eta fruituak udazkenean heltzen dira. Bere haziak oso bereziak dira, hegaldunak, haizeak erraz eramateko edo eta uretan ez ondoratzeke.

*Kabite baserri
ondoko Astigar
Arrunta ederra.
Sector 1 delako
urbanizazioak
arriskuan
jartzen du.*



Ezaugarri ekolojikoak

Astigar mota guztiak bezala, giro hezeak behar ditu. Normalki erreka ertzetan, latsetan, arroiletan eta askotan beste basoen (aritz, pagadi) babesean topa dezakegu.

Ez du lur berezirik behar baina maite ditu kare lurak. Berak bakarrik ez du baso haundirik osatzen baina baso ezberdinetan ikus daiteke.